

## domekako kontuak

Mikel Aramendi

# Garaiz dator hostoa aurten

Zirudien bezain pozik ez ziren gertuko PPko estrategak pasa den asteburuko *Operación Triunfo*aren arrakastarekin, segituan, amen esateko betarik gabe, R. Zapatero desestabilizatzeko operazioa martxan jarri dutenean. Eta gaur zortzira arte ezinbestekotzat ematen zen gobernu aldaketa *sine die* atzeratua geratu denean. Arenasek idazkaritza orokorrean eta M. Orejak linboan jarraitzekotan, beste guztiak iraun dezakeela erabaki bide du ardura aldaketak egitea baino erditzea nahiago duen Aznarrek. Ospatu baino astebete lehenago existitzen ez zen Kongresua, erabat ahaztu dago astebete geroago, gobernuaren benetako pagotxa oposiziorik eza dela berretsiz.

Hein horretan, argi dago sozialisten krisi amaiezina arrazoia ematen diola. Hurrengo CISKadak esango duena aurreikusiz edo, bazterrak harrotzen hasi dira betirako oposizio paper horretan etsitzen ez dutenek. A. Masek heldutasuna lor dezan (eta hauteskunde municipalen ondoren sozialistak umilduta egon daitezzen) Katalunian legealdia amaitu egingo denaren segurantziak eragindako kinada izan da Solanarena. Aznarismoak berzentralizaturiko Espainian ere ez da oso sinesgarria Chirac operazioa, baldin eta Papandreu operazioaren atari ez balitz. Baina guretzat bakarrik udaberri den negu sasoi honetan, oraindik, goizegi da horrelakoetarako.

Euskal sozialisten ika-mika, arazo orokorren atal txiki eta distorsionatua besterik ez da, azken bilkura federalean nahiko garbi ikusi zenez. Gasteizko eta Diputazioetako aurrekontuak negoziatzeko malgutasun taktiko eta zentraltasun poli-



MANUEL H. DE LEON / EFE  
PPko XIV. kongresuan Javier Arenas idazkari nagusia eta Jose Maria Aznar presidentea.

### Intrigen gortea

Ohikorik ohikoenetara itzultzen ari da Aznarren gort(e)a. Bakanduta dagoen Akademiako eserlekuak labankadaz erabakitzen diren bitartean, J. Urrutikoetxea eta Zaragozako 88ko atentatuarena atera dute galtzarbetik beste intrigante batzuek. Ezker abertzalearen erreferenteetako bat kanporatu nahi dutela dirudiela esaten diezunean erantzuten dizutena da okerrena: *depaso, noski; baina Pedro Jota duk benetako jo puntua, ulertzen?* Kostata.

tikoaren frogantza bailitzan agertu nahi izan duten aliantza-politika mudakorrek, beharbada, deskordinazioa eta lokalismoaren agerpena da, beste ezer baino gehiago.

### ETA, besoa bihurrituta

Vaillant kargura iritsi zenetik eta, batez ere, Irailaren 11koaren ondoren erabakitako aldaketa estrategikoen ildoan Frantziako polizia indarrek ETArek egitura operatiboari ezarri dioten setioa, faktore berezitua, autonomoa bilakatzen ari da Euskal Herriko politikan. Bidasoatik (eta Ebrotik) hegoalderago eginda dauden agenda politikoekin zer ikusi gutxi duena, alegia.

Erakunde armatua, ingelesek esango luketenez besoa bihurrituta, mahaian eserazteko estrategia horren beste aurpegia, jarduera errepresiboaren modulazioa, administrazioa, Madrilen eskuetatik at uzteko deliberoa da, noski. Eta bidena-bar, garai batean, ordainen eta gainerako en arabera Espainiako poliziaren sareetara bidaltzen ziren komandoak, abiatu baino lehen erortzen dira orain hexagonoan bertan. Aldi baterako entzeekin, epaitegiekiko konplimendua egin baina torturaren alderik itsusienak saihesten direla.

Itomen operatibo horrek berak noraino ezindu ote dezakeen ETArek erabaki politikoa da estrategia horren gako nagusienetako bat. Historiak hamaika bider frogatua da erakunde klandestino armatuek, ahulegi aurkitzen direnean, ez dutela negoziatzen, eta indartsu aurkitzen direnean, errealtasunaren printzipioari muzin egiten diotela batzuetan. Erdigune bertutetsua aurkitzea ez da horren erraza, ezta Parisko artistentzat ere.

## gogoratu

Joxan Elozegi

DUELA 674 URTE

## Karlos Kaskasoila

1328ko otsailaren 1ean hil zen Vincennesen Frantziako errege Karlos IV.a, *Ederra* deitua. Gazterik eraman zuen ustezko edertasun hura Saint Denisko hilobitegi dotorerara, hogei ta hamalaugarren urtea bete gabe hil baitzen. Kronikariek ez dute haren eginez ezer askorik idatzi, sei urte egin zituen erregetzan eta Kapetoen dinastia zuzeneko azken erregea izan zen, ez baitzuen semerik utzi. Jakina denez, Clovisen egunetatik errege oinordekotzarako eskubiderik gabe utzia zuen emakumezko ondorengoa franko saliarren legeak, eta kororako aukerarik gabe zeuden beraz Karlos IV.aren alabak aita hil ondoan. Ez zen horrelako legerik Nafarroako erresuman, ez zen beraz horrelakorik gertatuko, eta ez zen egiaz gertatu. Karlos I.a Nafarroakoa ere izan baitzen Karlos IV.a Frantziakoa, eta Joana II.a haren ondorengoa Nafarroan.

XIII. mende bukaeran, bete-betean jo

zuen edertasunak Frantziako Kapetoen errege-etxean. Felipe *Ederraren* semea zen Karlos IV.a, eta nola ez zen bada ederra izango haren semea? Joana I.a Nafarroakoa zuen ama, eta Nafarroako errege izan zituen halaber bi anaia, Luis I.a *Setatia* eta Felipe II.a *Luzea*. Alabaina, Nafarroan ez omen zituzten horren maite errege frantses haiek eta, mendekuz edo, *Kaskasoila* deitu zioten airean dilindan haizaturiko ezpataren burdinaren larderiaz inposaturiko erregeari. Nafarroako errege Karlos *Kaskasoila* inoiz ez zen Nafarroan izan, behin ere ez zitzaion basa

jende mintzo errebes haren lurraldeetara hurbiltzea gogoratu, ez zituen hango foru eta legeak zin egin nahi izan, gobernari militarren bitartez agindu zuen eta haien bidez manatu zien Nafarroako aitonen semeei, ordezkariak bildu eta, errege ezagutzeko xedean, Frantziako gortera joan zekizkion. Bildu ziren, bai, buruzagi nafarren ordezkariak, baina errege ez ezagutzeko erabakia hartu zuten, Luis I.aren alaba Joana nahi baitzuten berek. Ez ziren Parisera joan. Ez zuen Karlos *Kaskasoila* erabaki hark sobera larritu.

Nafarroako lehenengo errege Karlos

izan zen *Kaskasoila*. Izen germaniarra da Karlos jatorriz, «gizon zaharra» adiera zuena. Izen arrotza zen beraz Nafarroan eta Euskal Herri osoan. Euskaldunen etsai handienetako bat izan zen Karlo-magno, «Karlos Handia»; *Carolus* haren ospea Europa guztian zabaldu zen eta, egun ere, errege hitzaren sinonimoa da *koro*l hainbat hizkuntza eslaviarretan. Denboraren emanean, aristokraziako familien karlomaniaren poderioz, Europako gorte guztietan ugalduta ziren Karlos izeneko erregeak eta erregegaiak eta horra non, halabehararren patu petrala, karlistak bihurtu zitzaizkigun behialako foruen zaindari sutsuenak.

Handinahia zen Karlos *Kaskasoila*. Enperadore izan nahi zuen eta ingelesen aurka borrokatu zen Akitanian, hainbat garaipen lortuz, baina makurra ezagutu zuen haren armadak Beotibarren, gipuztzen aurka. Errege harroa eta arrotza izan zen Karlos *Kaskasoila*, azken Kapetoa.